

MARKINA-XEMEIN / Armairutik urteten

Armairutik urteten gay eta lesbianen harrotasun jaiagaz bat eginez, irakurketa gida bat prestatu dute Ermua, Tolosa eta bertoko liburutegiek.

Sexu aniztasunaren inguruko narratiba, filmeak, musika edo web orriak aurki daitezke Markina-Xemeingo, Ermuko eta Tolosako liburutegiek Gay eta Lesbianen Harrotasun Jaiarekin bat egiteko prestatu duten gida honetan: Armairutik irtendako irakurketak. Eguna bera pasa den eguaztenean ospatu bazen ere, gidak banatzen jarraituko dute liburutegietan.

Bederatzi atal dauzka gidak: lehenengo hirurak haurrentzako liburu eta bildumak batzen dituzte. Gazte literaturaren atal bat ere badago eta, azkenik, nagusientzako narratiba.

Fikziozkoak ez diren liburuak ere badatoz gidan: hiztegiak, komikiak, bidaia gidak, autolaguntza liburuak... Musika aldetik ere, gay-les mugimenduan erreferentzia den musika batu dute gidan. Beste atal batean filmak daude eta azkenik, Interneteko lekuak.

Gidan aipatutako materiala liburutegian koltsulta daiteke.